

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua, arestian esan bezala, ikasketen inguruan laguntza behar duen banakoei zuzenduta dago. Orokorrean, gazte eta haien familiei, baina era berean, beraien adina edozein dela ere, formazioa bilatzen duten pertsonei.

Eustaten 2015eko datuen arabera batxilergoko ikasleak Erdi Mailako Lanbide Heziketakoak halako bi dira, baina azken horiek % 5,7 hazi dira aurreko ikasturtearen aldean, eta Batxilergokoak nahiko egonkor mantendu dira, %0,6ko hazkundea izan dutelarik. Horrekin ikus dezakegu ikasketekiko interesa igotzen ari dela pixkanaka.

Esate baterako, aurten 11.915 ikasle aurkeztu dira selektibitatea egitera. Horietatik, 4.346 gazte Gipuzkoako Kanpusean aurkeztu dira, beste 5.956 gazte Bizkaiko Kanpusean eta beste 1.613 gazte Arabako Kanpusean. Ondoren ikus daiteke:

